



COLEGIO  
**URKIDE**  
SCHOOL /  
IKASTETXEA

# SENIDEEI ONGIETORRI GIDALIBURUA

## AMANKOMUNeko ATALA

1. SARRERA

2. IKASTETXEAREN HEZIKETA PROIEKTUA (IHP)

3. IKASTETXEKO ZERBITZUAK

4. BESTE ZERBITZU BATZUK

5. ZALANTZAK ARGITZEN

## 1.- SARRERA

Urkide lan elkartuko kooperatiba da, onura publikokoa deklaratu eta irabazteko asmorik gabea. Egoitza soziala Gasteizen du, Maddalena kaleko 8. zenbakian.

2007ko irailaren 1ean ekin genion jarduerari, Urtsulatarren kongregazioak 1882. urteaz geroztik kudeatzen zuen proiektuaren gestio integrala Kooperatibak bere gain hartu zuenean.

Plantilla ia osoa (irakasleak zein irakasle ez direnak) kooperatibako kide da. Gaur egun 97 kooperatibista gara.

Gure hezkuntza-eskaintzak 2 urtetik 20 urtera hartzen du barnean: 2 urteko ikasleentzako 4 ikasgela, Haur Hezkuntzako 1. mailatik (3 urte) Batxilergoko 2. mailara arteko 3 ikasgela maila bakoitzeko eta Gizarteko eta Kiroletako Irakaskuntzako eta Animazioko Goi Mailako Heziketa Zikloko 2 ikasgela.

### PERTSONAK ETA ESTAMENTUAK

<b>Zuzendaritza Taldea</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>- <b>Aitor Pérez de San Román</b> (zuzendaria)</li><li>- <b>Arantxa Urdániz</b> (zuzendariorde pedagogikoa)</li><li>- <b>Ana Ercilla eta Naiara Castillo</b>(Lehen Hezkuntzako zuzendariondokoak)</li><li>- <b>Julia Martínez</b> (Haur Hezkuntzako zuzendariondokoa)</li><li>- <b>Félix Sáenz de Ugarte</b> (zuzendariondokoa)</li><li>- <b>Juantxo Jiménez</b> (Ekonomia Saileko arduraduna)</li></ul>
<b>Zikloen koordinatzaileak</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>- <b><u>Lehen Hezkuntza:</u> Sara Mtz.de Arrieta</b> (1. zikloa), <b>Mikel Sánchez</b> (2. zikloa) eta <b>Borja Osante</b> (3. zikloa).</li><li>- <b><u>Bigarren Hezkuntza:</u> José Ángel Pérez</b> (1. zikloa), <b>M<sup>a</sup> Luisa Masedo</b> (2. zikloa) eta <b>Josemi Urrutia</b> (Batxilergoa).</li></ul>
<b>Ikastetxeko idazkaria</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>- <b>Josemi Urrutia</b></li></ul>
<b>Eskola Kontseilua:</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>- Irakasleak <b>Aitor Pérez de San Román, Ainhoa Ramírez de la Piscina, Gustavo Rivera, Idoia Anzizar, Josemi Urrutia, Eva Gil, Josune Aguirre, José Ángel Pérez.</b></li><li>- Familiak: <b>Felipe Luzuriaga, Oskar Fernández, Joana Jauregui eta Idoia Eguillor.</b></li><li>- Ikasleak:</li><li>- Administrazioa eta Zerbitzuak: <b>Joseba Luzuriaga.</b></li></ul>
<b>Gurasoen Elkartea</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>- <b>Felipe Luzuriaga</b> (lehendakaria)</li></ul>
<b>BESTE BATZUK</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>- Osasun-zerbitzua.- <b>IKASLARIN (ikasleak).</b></li><li>- Jangela: <b>Ainhoa Ramírez de la Piscina</b></li><li>- Idazkaritza: <b>Begoña Cayado eta Víctor Lekuona</b></li><li>- Administrazioa: <b>Tere Martín</b></li></ul>
<b>Berrikuntza Zentroa</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>- Koordinatzailea: <b>Malen Lería</b></li></ul>
<b>Cambridge azterketak</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>- Koordinatzailea: <b>Nick Tunstall</b></li></ul>
<b>Urkide English</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>- Koordinatzailea: <b>Pablo Ruiz</b></li></ul>
<b>Eskolaz kanpokoak</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>- Koordinatzailea: <b>Álex Salazar</b></li></ul>

## 2.- IKASTETXEAREN HEZIKETA PROIEKTUA

Urkideren IHPak (Ikastetxearen Heziketa Proiektua) gure hezkuntza-aukera islatzen du. Bertan adierazten da zer garen, zer izan nahi dugun eta gure hezkuntza-proposamenaren ildo nagusiak.

IHP dinamikoa, irekia, eleaniztuna eta balio pertsonaletan eta sozialetan oinarritua da.

Gure heziketa-proiektuaren oinarriak honako hauek dira: prestakuntza integrala, aniztasunari erantzutea, talde-lana, hizkuntza-proiektua, guztiok parte hartzea eta ikerkuntza eta berrikuntza,

Hona hemen gure IHPa inspiratu duten hiru **balioak**:

1. **Guztionezko irakaskuntza:** haren helburua HEZTEA eta EZ HAUTATZEA da.
2. **Guztion irakaskuntza:** haren helburua Eskola Elkarteko kide guztiek PARTE HARTZEA da.
3. **Ikaslearen prestakuntza integrala** xede duen irakaskuntza, pertsona bere osotasunean aintzat hartzen duena eta haren dimentsio guztiak garatzen dituen: FISIKOA eta MOTORRA, INTELEKTUAL-KOGNITIBOA, AFEKTIBO-EMOZIONALA, SOZIO-KULTURALA ETA ETIKO-TRASZENDENTEA.

IHParen helburu nagusiak bi hauek dira: **Aniztasunari Erantzutea**, hezkuntza indibidualizatzeko eta ikasgela bakoitzeko errealitate desberdinak onartu eta horietara egokitzeko, eta **Hizkuntzen Tratamendu Bateratua (HTB)**, gure ikasleek hizkuntzak erabil ditzaten edukiak ikasteko eta elkarren arteko harremanetarako tresnatzat.

Gure IHParen euskarriak honako hauek dira: **Tutoretza Plan** bat, zeinaren bidez ikaslea bere proiektu pertsonalaren eta profesionalaren protagonista sentitzea lortu nahi dugun; **Bizikidetza Plan** bat, eskola-giroa eraikitzen eta bizikidetza hobetzen laguntzen duena; eta **Balio Heziketa** sendoa, hezkuntza-jarduera osoan txertatua, ikasleari pertsona, gizarteko kide eta eragile eraldatzaile gisa hazten laguntzen diona.

### Taldeak

Ziklo eta etapa bakoitzaren bukaeran taldeak birbanatu egiten dira, irizpide pedagogikoei jarraiki. Orientazio Sailarekin elkarlanean egiten da birbanaketa, eta horretan ikasleen eguneroko harremanak, tutore ez diren irakasleen iritzia eta ebaluazioen emaitzak hartzen dira aintzat. Neska eta mutilen kopurua orekatua izaten, ikasle bakoitza bere lagunekin egoten eta atzetik datozen harreman negatiboak edo gatazkak eragozten saiatzen gara beti.

### 3.- IKASTETXEKO ZERBITZUAK

**Jangela:** Janaria ikastetxean bertan prestatzen du bertoko pertsonalak (ez da catheringa). Informazio gehiago webgunean. Izena emateko, deitu administraziora (Tere).

Zerbitzua eskola-egutegiko lehen egunetik azkeneraino dago erabilgarri.

Zerbitzua egunero erabiltzen duten ikasleen txostena egiten da, nola jaten duten eta nola portatzen diren jasotzeko.

**Eskolaz kanpokoak:** Ikastetxeko hezkuntza-proiektuarekin bat etorritz, ikastetxeko kirol eta kultur proiektuan taldekatzen dira ikasleen hezkuntza integrala ziurtatzeko ikastetxean egiten diren edozein jardueratan. Guraso elkarteak antolatzen eta gainbegiratzen ditu, ikastetxeko irakasle batek koordinatuta, eta kultura- eta kirol-jarduerak hartzen ditu.

Haur Hezkuntzako 2. mailatik aurrera haur eta gaztetxoek psikomotritzitatea, have fun playing (ingelesez jolasten gozatzen du) eta gozatu jolasten (euskaraz jolasten gozatzen du) dira.

Familientzako jarduerak ere badaude (euskara eta ingelesa).

Maiatzaren amaieran liburuxka argitaratzen da eta izena emateko prozesua (on-line) hasten da. Jarduerak urrian hasi eta maiatzean bukatzen dira.

**Hurtzaindegia:** Goizez 07:45etik 09:00etara (Haur eta Lehen Hezkuntzako maila guztietarako) eta arratsaldez 16:45etik 18:30era (2 urtetik Lehen Hezkuntzako 2. mailaraino). Prezioak gure webgunean ageri dira eguneraturik. Hurtzaindegia doakoa izango da haurrak Haur Hezkuntzan edo Lehen Hezkuntzako lehen zikloan dituzten familientzat, ikasgelako bilera orokorretara, familientzako berariazko prestakuntzara edo tutorearekin elkarrizketatzera etortzen direnean.

**Liburu-denda:** Ikastetxeak liburu-dendako zerbitzu bat du eskolako liburuak eta materiala erosteko. Uztaileko eta iraileko lehen astean jartzen da abian.

**Liburutegia:** Ikastetxeko pertsonalak zaindutako zerbitzua da, doakoa eta Gurasoen Elkarteak diruz lagundua. Lehen Hezkuntzako 3. mailatik aurrera dago erabilgarri, astelehenetan 16:00etatik 19:00etara eta gainerako egunetan 15:00etatik 19:00etara.

**Cambridge:** Ikastetxea Cambridgeko Unibertsitateak homologatutako zentroa da, bertan ingeles-proba ofizialak egiteko. Hala, gure ikasleek KET, PET, FIRST, ADVANCE eta PROFICIENCY azterketak egin ditzakete ikastetxean bertan. Proba horiek prestatzeko berariazko eskolak ere har ditzakete ikastetxean bertan.

Zerbitzu horren epe, prezio eta abarri buruzko informazioa aldeztatik argitaratzen da gure webgunean.

**Oporretako jarduerak:** Ekainean, uztailean eta irailean ohiko irakaskuntzaz kanpoko jarduerak osagarriak eskaintzen dira ikastetxean. Horien helburua da ikastetxeko familiei laneko eta etxeko bizitza uztartzeko erraztasunak ematea eta ikasleei jarduerak motibatzaileak eta hezitzaileak eskaintzea. Jarduerak guztietan hurtzaindegiko eta jangelako zerbitzuak erabiltzeko aukera eskaintzen da. Hizkuntza-kanpalekuak, jolas-txokoak eta arte- eta kirol-kanpalekuak eskaintzen dira. Jarduerak horietan izena emateko epea martxoan irekitzen da.

## 4.- BESTE ZERBITZU BATZUK

### Urkide Berrikuntza Zentroa eta Urkide Fundazioa

- **Urkide Berrikuntza Zentroa** gizartea zerbitzatzeko bokazioarekin sortu zen. Beste batzuentzat lanerako interesgarriak izan daitezkeen jardunbide egokiak eskaintzen ditu. Ikastetxean gauzatzen diren jarduera berritzaileak bideratu eta proiektu berriak garatzen ditu.
- Berrikuntza Zentroari bultzada handiagoa emateko xedez, horren barruan **Urkide Fundazioa** eratu dugu. Horren zeregin nagusia zentroan sortzen diren proiektuak lagundu eta sustatzea da. Urkide Fundazioan 7 enpresak hartzen dute parte gaur egun patronatuko kide gisa (**Autobuses Alegría, Gastronomía Cantábrica, Baika, Grupo Xabide, Wiko, SPCNet, Telbask eta Azetek**), eta nahi duten familia guztiek ere esku har dezakete (gaur egun 30ek).

### Katedraleko aparkalekua

Ikastetxeak hitzarmen bat du aparkaleku horrekin, ikastetxeko familiek deskontu bereziak izan ditzaten. Informazioa aparkalekuan bertan eskura daiteke.

### Instalazioak alokatu/lagatzea

- **Urtebetetzeak ospatzea**  
Ikastetxeak ikasleei urtebetetze-jaiak ikaskide **guztiek** ospatzeko aukera eskaintzen die, ostiraletan 17:00etatik 19:00etara. Horretarako, ikasgelako familia koordinatzaileek doako erreserba egingo dute idazkaritzan.
- Instalazioak alokatzea  
Gure instalazioak libre dauden orduetan askotariko jardueretarako aloka daitezke. Idazkaritzan eska daiteke informazioa.

### URKANTA abesbatza

Ikastetxean abesbatza bat sortu da eta hori irekita dago familiei eta ikastetxeko pertsonalari. Informazio gehiago jakiteko, galdetu ikastetxeko idazkaritzan.

### Naturkideak; mendi-talde bat Urkiden

Naturkideak Urkideko ikasleen guraso-talde batek osatzen du. Hark irteera txikiak antolatzen ditu igande goizetan, naturaz gozatu eta gure gertuko ingurunea ezagutzeko. Hilero irteera bat antolatzen du, eta astebete lehenago hari buruzko informazio guztia bidaltzen da familiek izena eman dezaten; irteerak gertuko mendietara egiten dira, eta 300 eta 600 metro arteko desnibeletan 7 edo 8 km-ko ibilbideak izaten dira, adin guztietarako egokiak izan daitezzen.

Gure seme-alabei ingurumenarekiko errespetua eta ezagutza erakustea eta, era berean, ikastetxeko familien arteko harremana sustatzea dira helburuak.

## **Urkide Inauteriak**

2014-2015 ikasturtean Inauterietako Batzordea sortu zen proiektu berri horrekiko interesa agertu zuen guraso-talde baten aldetik.

“Zerotik” hasi ginen, ez baikenuen ezer, gogoia eta ilusio handia baino ez.

Urte hauetan, proiektuak oso harrera ona izan du Urkideko familien aldetik, baita ikastetxetik kanpoko beste familia batzuen aldetik ere. Sekulako arrakasta izan du, eta horiek funtsezko pilarea osatzen dute; horiek gabe ezinezkoa izango litzateke hori guztia egitea.

Batzordean Inauterietako konpartsa egiteak eragiten duen lan guztiari forma emateaz arduratzen gara. Lotura berbera dugun pertsonak elkartzea da helburu nagusia, gure seme-alabak.



## 5.- ZALANTZAK ARGITZEN

Hasiera batean hobe da zure zalantza guztiak tutoreari edo ikasgelako familia koordinatzaileei galdetzea. Zalantzan jarraitzen baduzu, jo ezazu ziklo-koordinatzailearengana eta, azkenik, Zuzendaritza Taldera.

### Zalantza espezifikoak

- Administrazioari badagokio , administrazioa jo dezakezu (Tere, Víctor).
- Idazkaritzari badagokio, arduraduna Bego da.
- Plataforma digitalarekin zerikusia badu, (pasahitza, erabiltzailea) Victorrekin edo Josebarekin hitz egin dezakezu.
- Azpiegituretan arazoren bat antzematen badut: eman abisua idazkaritzan eta esan zure izena, ondoren zerbait argitu behar bada.

### Nire seme-alabak ikasteko arazorik edo arazo psikologikorik badu

Lehenik eta behin, joan tutorearengana. Beharrezkoa bada, tutorea Orientazio Sailarekin jarriko da harremanetan; horrek balorazioa egin eta, komenigarri iritziz gero, tratamendu zehatzago batera bideratuko du.

### Familientzako jokaera-protokoloak

- Seme-alaba eskolara joaten ez denean (gaixotasuna, irteera...) tutoreari esan behar zaio. Gaixotasun kutsatzaileak (zorriak, barizela...) edo osasun-gaitz nabarmenak (diabetesa, zeliakoak, alergiak...) tutoreari jakinarazi behar zaizkio.
- Banaketa-protokoloa. Familia-banaketa gertatuz gero, tutoreari adierazi behar zaio nork izango duen ikaslearen zaintza eta ikaslea noiz joango den guraso bakoitzarekin. EGUTEGI HORI BETE EGIN BEHAR DA. Bada protokolo bat, eta behar izanez gero familiari emango zaio.
- Nire seme-alabak ikaskiderekin batekin arazorik badu. Lehenbailehen hitz egin behar duzu tutorearekin horri buruz, ikastetxean ezarritako bideak erabiliz konpontzeko. EZ KONPONDU INOIZ ZUEN KONTURA.
- Baimenak. Ziklo edo etapa bakoitzaren hasierako bileran, familiek orri bat bete behar dute beren seme-alabei zertarako baimena ematen dieten adierazteko –irteerak, argazkiak edo bideoak eta joan-etorriak motordun ibilgailuetan–.
- Familia-datuak aldatzea. Familia-datuak aldatzen badira (helbide elektronikoa, telefonoa eta abar) lehenbailehen jakinarazi behar zaio tutoreari eta administrazioari (Victor).

## **Ikastetxeko jokaera-protokoloak**

- **Ikasleak osasun-arazoren bat badu (gaixotu egin bada). Ez zaio inolako sendagairik ematen.**  
Familiei ohartarazten zaie, haren bila etor daitezten. Ikasleak istripu-motaren bat jasaten badu, arazoa gertuen dagoen botikinarekin konpontzen saiatzen gara (**zauriak garbituz edo tiritu bat jarrita, adibidez**). Arazoa larriagoa bada, Ikaslarini jakinarazten zaio, medikua etorri eta hark arazoa in situ konpondu edo ikaslea San José ospitalera edo beste ospitale batera bideratu behar den baloratu dezan; hala bada, familiari jakinaraziko zaio. Arazoa oso larria bada, ikastetxetik ambulanzitari edo taxi bati deitzen zaio zuzenean, baita ikaslearen familiari ere; familia lokalizatzen ez bada, ikastetxeko langileek lagunduko diote.
- **Banakako irteerak (medikuarengana...):**  
Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan: ohar baten edo agendaren (Lehen Hezkuntzan) bitartez jakinarazi behar zaio kasuan kasuko tutoreari.  
DBHn eta Batxilergoan: irakasleak sinatutako orri bat aurkeztu behar dute idazkaritzatik irtetean.
- **Jolastokia erabiltzea 17:00etatik aurrera:**  
17:00etatik 19:00etara, jolastokia zabalik egongo da baina ikastetxeko pertsonalak **zaindu gabe**, eskolaz kanpoko jardueretan izan ezik.  
Goi-mailako irakaskuntzakoa ez den ikastetxe baten titularrek adin txikiko ikasleak irakasleen kontrol edo zaintzapean daudenean soilik izan behar dute ikasleek eragindako kalteen erantzule, alegia ikasleak eskolako jarduerak, eskolaz kanpokoak edo osagarriak egiten ari diren bitartean. Hortaz, gainerako orduetan guraso eta tutoreei ikasleak zaintzea eskatzen diegu, guztion onerako. Ezin da ikastetxeko eraikinetan sartu, kanpoan ere komunak daude.
- **Etzetik ikastetxera eta ikastetxetik etxerako joan-etorriak.**  
Mesedez eskatzen dizuegu zuen ardurapeko adin txikikoen joan-etorriak arretaz zaintzeko, harik eta ikastetxera sartu arte edo handik irteten direnean, batez ere ikastetxearen ingurumarietan, aglomerazio handiak egon baitaitezke.

Datu pertsonalen babesa

\*Ikasleei eta familiei datuak biltzeko ematen zaizkien formulario guztiek dagokien lege-oharra jasotzen dute, datu horiek Urkideren jabetzako artxibategi batean gordeko direla eta interesdunek datu horiek eskuratu, zuzendu eta ezeztatzeko eskubidea dutela jakinarazteko.